

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

7/2020 Foru Araua, maiatzaren 27koa, 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

7/2020 Foru Araua, maiatzaren 27koa, 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, maiatzaren 12koa, baliozkotzeko dena, onespena emateko COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da maiatzaren 12ko 6/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko COVID-19rekin lotutako zerga neurri berriak hartzeari.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA